



454 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko maiatzaren hamalauan.

Jendaurrean zabaldu bidezko negoziaziozko prozedura jarraitu eta gero, 2010eko apirilaren 28an Oiartzungo Udal Osoak hartutako erabaki bidez, Etxeko hondakinen gaikako bilketarako etxolak eraikitze obraren kontratua, zein 13/2009 Errege Dekretu-legea arautzen duen Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fondoaren bidez finantzatuko da, CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 eta 96.2. artikuluekin adostasunean, hamar egun balioduneko epea eman zitzaion behin betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantzza eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikulua 3.parrafoaren eta Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fonda arautzen duen 13/2009 Errege Dekretu-legearen 17.1.b) artikulua araber, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, eta Udal Osoak 2009ko maiatzaren 13an behin-betiko esleipenekiko Alkatearengan egindako eskuordetzearen baitan, eta Udal Osoak 2009ko maiatzaren 13an hartutako erabakia berretsiz, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L. enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituzenez, Oiartzungo Udal beilatokia eraikitze obraren kontratua CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L. enpresari behin betikoz esleitzea da, 489.505,00 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 4 hilabeteko gauzatze-eparekin eta obran 10 pertsona okupatuko dituelarik, 5 enpresan integratutakoak eta 5 langabeziatik kontratatutakoak.

Bestalde, jarritako behin-behineko bermeak itzuliko zaizkie aurkeztutako hiru enpresei: CONSTRUCCIONES ALZOLA, ERRETI ERAIKUNTZAK eta URBYCOLAN.

Ordainketak Udal Aurrekontuko 1 1001 622 313 91 01 (598-2010) diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

